

Año LII urtea

N.º 94. zk.

2020



CUADERNOS de Etnología y Etnografía de Navarra

SEPARATA

Aralar mugarriturik (1523-1857)

Jose Luis ERDOZIA MAULEON

Sumario / Aurkibidea

Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra

Año LII urtea - N.º 94. zk. - 2020

ARTÍCULOS/ARTIKULUAK

Etxe izen zizelkatuak. Ageriko idazkunak etxeetan eta hilobietan Koldo Colomo Castro	9
Recardera, oficio de mujer Ricardo Gurbindo Gil	63
Aralar mugarriturik (1523-1857) Jose Luis Erdozia Mauleon	99
El leçayo, una soka-dantza del siglo XVI Ricardo Urrizola Hualde	135
El recuerdo público de una muerte política: historiografía periodística y etnografía de la ritualidad pública (José Luis Cano Pérez, 1949-1977) Kepa Fernández de Larrinoa, Karlos Irujo Asurmendi, Santiago Martínez Magdalena, Txuri Olo Gorriti, Cristina Saura Blanco	157
El Camino de Santiago en Navarra en 1971 a la luz de un informe para su mejora elaborado por la Dirección de Turismo, Bibliotecas y Cultura Popular Fernando Vega López	225
Reformulación del discurso significativo sociocultural en el entramado fortificado de la Línea P (Valle de Roncal-Navarra) Pablo M. Orduna Portús, Fco. Javier San Vicente Vicente	271

Sumario / Aurkibidea

NOTICIAS/BERRIAK

Joxe Ulibarrena y su pasión por la Etnografía

Elur Ulibarrena Herce

311

RESEÑAS / ERRESEINAK

315

Normas para la presentación de originales / Idazlanak aurkezteko arauak /

Rules for the submission of originals

329

Aralar mugarriturik (1523-1857)

Amojonamiento de Aralar (1523-1857)

The marking of Aralar (1523-1857)

Jose Luis ERDOZIA MAULEON

Geografia eta Historian lizentziaduna eta Euskal Filologian doktorea
erdoziamaleon@gmail.com

DOI: <https://doi.org/10.35462/CEEN94.3>

Jasotze data: 2020/05/27. Behin-behineko onartze data: 2020/11/08. Behin betiko onartze data: 2020/11/27.

LABURPENA

Aralar mendiaren eremua noiz eta nola mugarritu zen jaso da artikulu honetan, Etxarri Aranazko udaletxeko artxiboan dauden bi dokumentutan oinarriturik: 1523. urtekoa lehen, Gipuzkoari ematen zaion eremua mugarritzen duena (osoaren herena, gutxi gorabehera); eta 1857koa bigarrena, Nafarroari ematen zaion eremuko mugarririk jasozen dituen eremua (osoaren bi heren). Mugarritzeen inguruko zertzeladak ere (baldintzak, ekaiak, deskribapena, parte-hartzaileak) aipatu dira artikuluan, eta baita bi dokumentuetan ageri diren toponimoak aztertu ere, egungo toponimia ofizialean lekurik ba ote duten azpimarratuz. Amaieran, bi dokumentuen transkripzioa dator.

Gako hitzak: Aralar; mendia; mugarritzea; toponimia; transkripzioa.

RESUMEN

El presente artículo recoge cuándo y cómo se realizó el amojonamiento total de la Sierra de Aralar, en base a dos documentos del archivo municipal de Etxarri Aranatz: el primero de 1523, que relata el amojonamiento de la parte que da a Gipuzkoa (un tercio del total); y el segundo, de 1857, correspondiente a la parte de Navarra (dos tercios restantes). También se recogen los aspectos referentes a los amojonamientos (condiciones, materiales, descripción, participantes), así como el análisis de los topónimos que aparecen en ambos documentos, comprobando si aún se mantienen en la toponimia oficial. Al final del artículo, se ha realizado la transcripción de los documentos mencionados.

Palabras clave: Aralar; sierra; amojonamiento; toponimia; transcripción.

ABSTRACT

The article collects when and how was carried out the total marking of Sierra de Aralar. It is based on two documents from the municipal archive of Etxarri Aranatz. The first one, dating from 1523 reports the marking of the area that borders Gipuzkoa (one third of the total area) and the second one, dating from 1857, corresponds to the area that borders Navarra (two thirds of the total area). It also includes aspects related to the marking (conditions, materials, description, participants) as well as the analysis of the toponymy that appears in both documents, checking whether the official toponymy is maintained. At the end of the article the mentioned documents are transcribed.

Keywords: Aralar; mountain; marking; toponymy; transcription.

1. SARRERA: LANAREN HELBURUA. 2. MUGARRITZEA: DEFINIZIOA ETA BEHARRA. 3. MUGARRIAK: BALDINTZAK ETA DESKRIBAPENA. 4. PARTE-HARTZAILEAK: HERRI-ORDEZKARIAK, ADITUAK, ESKRIBAUAK. 5. MUGARRITZEEN IKUSKATZEEN MAIZTASUNA ETA ARRAZOTIAK. 6. ARALARKO EREMUAREN MUGARRITZEA. 6.1. Arañaz elkarteak eta Valmedianoko markesak 1561etik 1564ra bitartean egindako mugarritzea (finean 1523koa gogoratuz). 6.2. 1857ko mugarritzea (Arañatz - Lakuntza - Arruazu - Uharte Arakil - (Baraibar) - Errazkin - Betelu - Intza eta Gaintza Aralarrekin mugan). 7. ARALAR MENDIA 1561ETIK 1564RA BITARTEKO ETA 1857KO MUGARRITZEEN ARABERA MUGATURIK. 8. ERREFERENTZIAK. 8.1. Bibliografia. 8.2. Etxarri Aranazko artxiboko erreferentziak. 8.3. Erreferentzia elektronikoak. 9. ERANSKINAK.

1. SARRERA: LANAREN HELBURUA

Lan honen bitartez, Aralar mendiarekin muga egiten duten herrien eremuak nola mugarritu zituzten ikusteaz gain, erakutsi nahi dut zer-nolako garrantzia zuen herri edo herri-elkarte batentzat bere eremuko herri-lurren zaintzak, lur horiek (baso, soro zein larre) ematen baitzioten bertako biztanlegoaren gehiengoari bizirauteko aukera. Biziraun aditza erabili dut, horixe egiten zutelako mugarriztatearen garaietako herritar gehienek, edozeren jabe izanik eta jabetza horri etekina aterata ere ezin baitzioten muzin egin modu bateko edo besteko zerga ordaindu beharriari (hamarrenak, hastapenak...).

Ez da harritzekoa, orduan, herri edo herri-elkarteek beren eremua zaindu eta kontrolatu nahi izana, eta, hala ere, maiz berrikusi behar izaten zuten hura. Eremu bateko ganadua aldamenekoarenean sartu zela; haritz eder bati ondo jo eta eraman egin zutela; egurra; urak; belarrak; ezkurak... Udaletxeetako artxiboetan ugari dira dokumentu zaharrak, zeintzuetan oraintxe aipaturiko egintzek sortutako salaketa eta epaiak jasotzen diren. Eta horrelakoak gertatzean agintariak erabaki zuzenak hartzeko, ezinbestekoa zen eremuen mugak erabat zehazturik eta begien bistan ezarririk izatea.

2. MUGARRITZEA: DEFINIZIOA ETA BEHARRA

Muga zehaztu eta hura guztia begien bistan zalantzarik gabe ezartzea zen, hain zuzen ere, mugarriztatearen eginkizuna.

Mugarritzatu edo mugarritu. Honela definitu du Euskaltzaindiaren hiztegiak *mugarritu* aditzaren ekintza: «*du* ad. Mugarrien bidez mugatu edo seinlatu».

Gehiago zehazten du www.encyclopedia-juridica.com web-orriak:

Amojonamiento. El acto de señalar con mojones los términos o límites de alguna heredad o tribu. El amojonamiento puede comprender tres operaciones que son: el deslinde, o fijación de las pertenencias legítimas de cada una de las heredades contiguas, mediante el examen de los títulos de propiedad y demás pruebas aducidas por los interesados; el apeo operación material de medir las tierras ya deslindadas; y el amojonamiento, propiamente dicho, la colocación de señales ya definidas.

Hiru eginkizunez osatua egon daitekeela esaten digu, orduan, mugarritzatzea: mugaketa, edo ondoko lur bakoitzaren legezko ondasunak finkatzea jabetza-tituluen bidez; mugatutako lurak neurtzeko eginkizun materiala; eta, ezinbestean, zehaztutako mugarrak erabakitako tokietan ezartzea.

Emilio Benitez Aguado¹ ingeniariak (2007, 91. or.) honela definitu zuen mugaketa:

Se entiende por deslinde al acto formal de distinguir los límites de una propiedad. (El deslinde no indica quién es el propietario de la propiedad, sí su forma y dimensiones). El amojonamiento sirve para plasmar físicamente los límites de la propiedad. La acción de amojonar es una operación posterior y consecuencia del deslinde.

Eginkizun garrantzitsua zen, bistan da, mugarritzatzearena, eta garrantzi horren lekuko nabarmena da XVI. mendean Sakanako eskualdean egindakoa Arbizu herriaren eremua finkatzeko. Arazoak izan zituzten arbizuarrek aldameneko etxarriar eta er-goindarrekin, mende horretako berrogeiko hamarkadaren hasieran, haien ustez eurenak ziren belarrak jatera sartu zutelako Arañaz elkarteko agintariekin hitzarturik Erriberako abeltzain baten ardi saldoa.

Arbizuarrek ardiren bat hil eta artzainari kapusaia kendu ziotelako sortu zen auzia, eta, lau urteren buruan, 1537an, etorri zen epaia, zeinen arabera, 24 mugarri ezarriz herriaren inguruan, finkaturik geratu zen Arbizuren lur-eremu propioa (Erdozia, 2017a).

3. MUGARRIAK: BALDINTZAK ETA DESKRIBAPENA

Ohiko eginkizuna izan da mendeetan zehar, gurean gutxienez, mugarritzatzearena, eta horrexegatik dago, hain zuzen ere, nolabait arautua ere bai.


1 Valentziako Unibertsitate Politeknikoko Ingeniaritza Kartografikoko Saileko irakasle eta Valentziako Katastroko Eskualde Gerentziako Normalizazio Ataleko burua.

Lehentxeago aipatu dudan Emilio Benítez Aguado ingeniariak honako baldintza hauek aipatzen ditu, bestalde, mugarriak behar bezala ezartzeko:

Requisitos del amojonamiento: • Materiales; piedra natural o de hormigón. • Forma (se quiere estabilidad). Truncocónica o piramidal, grande y pesada. • Debajo de las piedras se colocará una capa de carbón, cal o ceniza que sirva de testigo en el caso de desaparecer el mojón. Se colocarán tantos hitos como vértices tenga el perímetro de la propiedad. Cuando no se pueda colocar un mojón, se pondrán cerca mojones que definan dos líneas cuya intersección se halle en el punto a amojonar.

Eta Valentziako Unibertsitateko irakasleak aipatzen dituen baldintzak XVIII. mendean gurean nola betetzen ziren erakusten digu Etxarri Aranazko Udal artxiboko 1777ko dokumentu batek:

[...] puso en su lugar abriendo la fosa o augero otro nuevo mojón de Piedra Arenisca poniendo por basa o cimientos en señal de verdadero vestigios del legitimo mojón, pedazos de texa, carbón, y cascara de huevos y introdujo dentro en pie y medio en quadro y de altura lo metido en tierra dos pies y medio menos una onza teniendo dicho mojón de altura desde la superficie tres pies y siete onzas, labrado, triangularmente de modo que el uno de los lados del dicho triangulo mira a los montes y términos de la Comunidad de Arañaz [...].



1. irudia. 1777ko mugarria dokumentuaren arabera.



2. irudia. 1777ko mugarria.

Etxarri Aranazko ipar-mendebaldeko mugan Irumugeta toponimoaren eremuan da-
goen mugarria nola jarri zuten deskribatzen digu dokumentuko zati horrek. Mugarriak
hiru muga adierazten ditu: Arañazko elkarrea (Etxarri Aranazko basoa), Burunda
(Bakaikuko basoa) eta Valmedianoko markesarena (Ataungo basoa).

Aurreko irudietan ikus dezakegu Irumugetako mugarria: ezkerrekoan, nik neuk do-
kumentuko deskribapenari jarraituz marraztutakoa; eta, eskubikoan, mugarriaren ar-
gazki bat bere kokalekuan.


Bestalde, 1889an, Etxarri Aranatzek eta Bakaikuk (desagertuak ziren ordurako Ara-
ñaz elkarrea eta Burundakoa) bi herrien arteko muga markatzeko hirurogei mugarri
paratzeko baldintzak ezarri zituzten, eginkizun hori enkantean esleitzeko ondoren. Bal-
dintzak eta baita mugarri berezi baten marrazkia ere utzi zizkiguten Etxarri Aranazko
Udal Artxiboko dokumentuan.

Lehen-lehenik, mugarrien neurriak aipatu zituzten: 0,80 m luze agerian eta 0,50 esta-
lirik, eta oinarria karratua, 0,30 m-ko aldeekin eta 0,09 m²-ko azalerarekin.

Enkantean lana hartzen zuenak, hau da, esleipendunak, honakoa egin behako zuten:
mugarriak sortu, landu eta alde zurretik erabakitako toki zehatzetara garraiatu.

Mugarriak sortzeko lekuak ere esleipendunak erabaki beharko zituen, betiere eremu
pribatuetan ez egiteko baldintzapean, ondoren balizko erreklamazioak ekiditeko.

Lehentxeago nioen bezala, mugarri berezi bat ere egin beharko zuten esleipendunak,
oinarri triangeluarra izanzen zuena, metro bat agerian utzita eta 0,50 m lur azpian. Oi-
narriko triangelua ekilateroa izanzen zen, alde bakoitza 0,35 m-koa izanik. Irudia ere
erantsi zuten dokumentuan:



3. irudia. 1889ko dokumentuko marrazkia.

Mugarri hori Barga gainera eramán beharko zuen esleipendunak, eta mugarri guztiak paratzeko epea ere ezarri zioten.

Ordainketa nola eginen zen ere aurretik erabaki zuten: haiek ezarritakoan ordainduko zioten hogeí mugarri zegokion kopurua, ingeniariak oniritzia eman ondoren. Eta hasi, Irumugetatik (Etxarri Aranatz, Burunda eta Ataun) hasiko zen mugarriak jartzen.

Esleipenerako baldintzetan, mugarri bakoitzeko zazpi pezeta eta erdi ordainduko zirela esaten zen, baina, enkantea burutu zenerako, 12,5 zentimoko jaitsiera² izan zuen mugarriaren salneurriak, eta, horregatik, 7,35 pezeta ordaindu ziren azkenean mugarri bakoitzeko. Lanaren ardura hartu zuena, hargina, Bernardo Ynchorrondo etxarriarra izan zen.

4. PARTE-HARTZAILEAK: HERRI-ORDEZKARIAK, ADITUAK, ESKRIBAUAK

Mugarritzeetan, normalean, mugarritu behar zen eremuko partaide ziren herrietako ordezkariak izaten ziren. Gehienetan alkatea eta zinegotziren bat edo beste («rexidor»), alde batetik, betiere eremua eta herriko lurra ongi ezagutzen zituztenak; eta eskribau ofizial bat, bestetik, hartutako erabakiak dokumentu batean islatu eta jasotzeko.

Hona jarraian 1699ko lastailaren 11ko mugarriztazteetan Arañaz elkartean eginkizun horietan aritutako arduradunak («Autos de amojonamiento de los Monte de Arizalco, Bargas, Berain, y Sel de Uzuar»).

Parte-hartzaileak edo mugarritzeetako protagonistak:

- Eskribaua: «Pedro de Jauregui».
- Etxarri Aranatz: «Miguel de Artieda, Atte (alkate) y juez ordinario; Miguel de Miguel de Echarri, vecino y diputado³; Fermin de Aguirre, almirante; Juan Bruno de Bacaicoa, regidor; Domingo de Bacaicoa menor, vecino y diputado: Esteban de Maiza, regidor; Miguel de Maiza, regidor».
- Ergoiena: «Juanes de Aldaburu, Atte ordinario del valle de Ergoiena; Martin de Urquizu, Rex^{or} del lugar de Lizarraga; Pedro Martines de Larraza, vecino y diputado de Lizarraga; Martin de Peruzurquin, vecino y diputado de Lizarraga; Jose

2 Esleipendunak, hasieran, baldintzetako salneurrian hartu zuen enkantea, baina, ondoren, beste batek hartu zuen baldintzetan aurrikusitako jaitsierarekin, hots, mugarri bakoitzeko 6,25 zentimoko jaitsierarekin, eta, atzera berriz, esleipendunak beste hainbeste jaitsi behar izan zuen lana egin ahal izateko.

3 Horretarako «aukeratua», «aditua».

de Ascundia⁴, diputado de Lizarraga; Juanes de Aldaia, rexidor del lugar de Torrano; Christobal de Lizarraga, diputado de Torrano; Juanes de Aguirre, diputado de Torrano; Jose de Mozos, regidor del de Unanua; Martin de Mendibe, diputado de Unanua».

- Arbizu: «Garcia de Arbizu, alias Vicario, vecino y diputado; Juanes de Leiza, vecino y diputado».

5. MUGARRITZEEN IKUSKATZEEN MAIZTASUNA ETA ARRAZOTIAK

Mugarritzeak, ohikoak, hainbat urtetik behin⁵ egiten ziren (oraintxe aipaturikoa, esate baterako), aurretik aztertutako dokumentuak kontuan izanik eta mugek zehaztutako moduan jarraitzen zutela ziurtatzeko. 1571n egindako ikuskatzean Etxarri Aranatzeko eta Valmedianoko markesak lekuko gisa eramandako Juan de Gorricho apezaren hitzetan, berrogeita hamar urtean zehar makina bat aldiz ikuskatu zituen berak eremu horretako mugarriak, eta, kasu honetan beste behin, honela dio une horretako auziaren harira («pleito»):

Testigo el d(ic)ho Dn Juan Gorricho clérigo beneficiado de la Parr(ochi)al Yglesia de Sta Maria de la Villa de Echarri Aranaz e vecino de ella testigo present(a)do por el d(ic)ho Ju(e)z Arza en el d(ic)ho nombre de los d(ic)ho sus p(ar)tes para el d(ic)ho pleito que a e trata con las Universidades de Amezqueta Abalcisqueta e sus consortes habiendo jurado en forma dijo e depuso lo sig(uien)te =

A la prim(er)a preg(un)ta⁶ dijo que conoce a mu(cho)s vecinos de las universidades de Ataun Amezqueta e Abalcisqueta por vista e abla e conversaz(io)n y con ellos e con cada uno de ellos ha tenido e tiene e por la misma conoce al d(ic)ho Dn Phelipe de Lazcano e sabe e tiene noticia del termino d(ic)ho e nombrado Agaunza e del termino que se dice Alleco sobre que es este pleito por haver estado en ellos y en cada uno de ellos por m(u)cha)s e diversas e cinquenta años poco mas o menos de esta parte =

Respondiendo⁷ a las preguntas g(ene)ra(le)s de la ley dijo ser de hedad de sesenta y cinco años poco mas o menos e que no es pariente de ninguna de las p(ar)tes ni le va interés en este pleito ni concurren en el ninguna de las caudades que la ley dispone y su deseo es balga la jus(tici)a a la p(ar)te que la tiene =

4 Axkondo, seguru asko.

5 Rafael Carasatorrerren documentanavarra.blogspot.com helbide elektronikoan jasota dagoen 1854ko mugarritzean (Arañaz elkarte eta Valmedianoko markesa) honela dio: «...con el objeto de que la citada mojonera se conserve con toda claridad que desean, determinan que de seis en seis años se haga un reconocimiento de la misma fecha y testigos los mismos».

6 Ezkerreko aldean: «1.^a».

7 Ezkerreko aldean: «2.^a».

A la tercera⁸ preg(un)ta dijo siéndole leído e mostrado el memorial de los hitos y mojones y señales de que la pregunta hace mención dijo que sabe e tiene noticia de todos los d(ic)hos mojones hitos y señales y linderos contenidos en el d(ic)ho memorial por los haver visto andado y apeado por m(uch)as veces los d(ic)hos mojones en el t(iem)po de los d(ic)hos cinq(uen)ta años e por tales mojones e linderos del d(ic)ho term(ino) de Ağaunza y Alleco e por tales los ha tenido e tiene este tes(tig)o en su tiempo e por endreceras e partidas comprensas dentro del d(ic)ho termino e nombre general de Ağaunza lo qual sabe porque este testigo en todo su tiempo a sido muy aficionado a cazar de todo genero y demandas de azores que hay en los d(ic)hos términos e por muchas veces en cada un año de los d(ic)hos de suso ha ido y estado y reconocido el d(ic)ho term(in)o de Ağaunza y los d(ic)hos mojones e linderos de el que son los declarados en el d(ic)ho memorial que son los sig(uien)tes =

Horrela erakusten du, era berean, 1852an Arañaz elkartearen eta Uhartea Arakilen artean egindako mugarritzeak, zeinaren hasieran adierazten duen, datu aipagarri moduan, ez zutela espaldian (138 urte) mugarritzea ikuskatu:

En el monte denominado de Ondaz mojonera de la Villa de Huarte-Araquil y Comunidad denominada de Arañaz a diez y seis de setiembre de mil ochocientos cinquenta y dos. Estando juntos y congregados como lo tienen de costumbre los señores [...] que desde la cabecera del termino de debate hasta encontrarse con la peña que en lo antiguo se denominaba Gazteluco barga no se ha verificado ningun reconocimiento de mojones desde diez y siete de junio de mil setecientos y catorce, por cuyo motivo [...] antes de que por esta razon se susciten algunas diferencias entre ambas comunidades.

Baina, gehienetan, zenbait arazo edo salaketa zirela medio suertatzen zen eremu jakin bateko mugarritzea aztertu beharra hala egiteko data iritsi baino lehen. Azken horien kasuan, normalean bi eremu mugakide nagusiren artekoak izaten ziren mugarri-ikuskatze berriak, baina, zenbait kasutan, eremu jakin bateko partaide ziren herrien artekoak ere izaten ziren. Horietako bat dugu, esate baterako, 1804. eta 1805. urteetakoak, Etxarri Aranatz eta Ergoienaren artekoak, 1543ko eta 1559ko epaietan oinarritua («sentencias arbitrarias»). Auziko bi aldeak Arañaz elkarteko kide ziren, eta haien artean suertatu zen liskarra, Ergoienak etxarriar baten txerriak atxilo hartu zituelako (edo etxarriarren baimenarekin gutxienik, ustez lizarragatarren eremuan sartzeagatik). Arañaz elkarteak Etxarri Aranatz, Arbizu eta Ergoiena herriek osatzen zuten, eta, dokumentuak erakusten duen moduan, argi eta garbi ezarririk zeuzkan erakundeak bere arau eta ardurak.

Ikusi honako testu honetan nola zehazten den ganadua atxilo hartu edo zigorrak ezartzeko ardura:

8 Ezkerreko aldean: «3.^a».

Y porque la capitula 6^a de la sentencia arbitraria del año de 1559, folio 27, no autoriza al valle [Ergoienari buruz ari da], su alcalde, rexidores, ni costieros⁹ para que puedan carnerear¹⁰ ganado alguno de cerda, sino que el alcalde del valle con sus jurados, y comunicacion de los que le pareciere, puede acordar hacerlo de las reses menores, enviando dentro de medio dia su quarta parte a los de la villa; y la facultad de carnerear cerdos unicamente esta concedida al alcalde y rexidores de la villa [Etxarri Aranazkoez ari da] y al alcalde de montes de la comunidad de Arañaz (en que son comprensos la villa y valle) que siempre ha sido, es y debe ser uno de los vecinos de la villa, y a el qual estan sujetos los costieros de montes de ella y del valle; y aunque los de este quando particularmente salen a reconocer y custodiar las endreceras situadas desde el Rio Mayor hacia Estella pueden prender cualesquiera ganados granados y menudos y tambien a los que cortaren fusta materia y leña con obligacion de preservar al alcalde del valle y este puede devolver bajo fianzas lo prendado, o carnerear las reses menores en la forma referida, no se estienden esas facultades a poder carnerear cerdos como le consta muy bien al valle.

Liskarra edo arazoa 1804. eta 1805. urteetakoa da, baina, lehentxeago esan dudan moduan, horixe argitzeko arauetara jo zuten, eta arau horiek 1559koak ziren. Horien arabera, soilik Etxarri Aranazko alkateari eta zinegotziei zegokien ardura hori, ganadu larriekin behintzat, edo, bestela, Arañaz elkarteko ahaltzain edo basozainari («alcalde de montes»), eta hori ere, ezinbestean, etxarriarra izan behar zen. Eta gainerako basozainak haren agintepean zeuden, bai Etxarri Aranazkoak, bai Ergoienakoak.

Bestela ere, badugu adibide argia bi eremu nagusiren arteko liskar edo auzi bati dagokionez gurean, Etxarri Aranazko udal artxiboan dagoen 1739ko dokumentu batek erakusten digun moduan. Kasu horretan, haiek ditugu auziko aldeak: Arañaz elkartea, batetik, eta Lakuntza eta Uharte Arakil herriak, bestetik. Beriain mendiaren azpian, aipatu eremuen arteko mugan bertan apika, unanuar batek haritz bati ondoa jo zion, baina, behin botata, lakuntzarrek eraman zuten haritza, beren eremuan zegoela argudiatuz.

Dijeron que en dho monte de Arranaz habido y hay sus mojones que dibiden parten y señalan lo que es sitio y paraje de la comunidad y valle de Arañaz y lo que es termino y monte facero y comun de dhas villas de Huarte y Lacunza y con el motivo de haber cortado y derribado un roble cierto particular de dho lugar de Unanoa y llevado aquel los vecinos de dha villa de Lacunza sin embargo de haberlos prendado el costiero de montes de dha villa de Arvizu para saber si el prendamiento fue legitimo por la duda del paraje en que se hizo el corte, dado parte a dhos pueblos y de conformidad prefilado el dia de oy se han juntado todos los otorgantes y enterados del sitio y de personas que en dho monte han andado con sus ganados pastoreando y que faltan

⁹ Basozain.

¹⁰ Atxilo hartu.

algunos mojones a fin de evitar para en adelante qualquiera duda y confusion en la parte inferior de dho monte que es donde se derribo el referido roble.

Bistan da, orduan, zein eta zeinen artekoa izan zen 1739ko auzia, baina mugarritze hori aztertutakoan izanen ditugu argibide gehiago, oraingoan Aralarko mugarritzearekin baikabiltza eta honexek ez baitio horri eragiten.

6. ARALARKO EREMUAREN MUGARRITZEA

Mugarritzeak zertarako eta nola egiten ziren argitzen saiatu ondoren, jarraian, Euskal Herriaren erdigunean dagoen Aralar mendiarena aztertuko dut, hiru mendeko aldean duten bi dokumentuz baliaturik.

Bi dokumentuak Etxarri Aranazko udaletxeko artxiboan daude, eta horietan erabat mugaturik ageri zaigu Aralar mendiaren eremu osoa, edo ia osoa, zeren bigarrean ezin izan baitzuten Larraun haraneko Baraibar herriari zegokion eremua bistaratu, herri horretako ordezkariak ikuskatze hartara ez ziren agertu eta.

Lehen mugarritzearen dokumentua 1561etik 1564ra bitartekoa da, nahiz eta, testuak berak dioten moduan, 1523koa izan funtsean. Bertan, Gipuzkoa aldera ematen duen eremua dago mugarriturik. 16 mugarri aipatzen dira dokumentu horretan.

Bigarrena 1857koa da, eta, aurrekoan amaiera markatzen duen mugarrian hasita, Aranatz, Arakil, Larraun eta Araizko eremuak mugarritu zituen. Guztira 73 mugarri aipatzen ditu, baina kontuan izan behar da Baraibarkoak falta direla.

6.1. Arañaz elkarreak eta Valmedianoko markesak 1561etik 1564ra bitartean egindako mugarritzea (finean 1523koa gogoratu)

Dokumentua: (Legajo num. 9. Año de 1561 al 1564. «Comprende los autos de Amojonamiento desde Soilas bizcar hasta Oregui gaña entre el Sr. Marques de Valmediano y los pueblos de Amezqueta y Abalcizqueta».) (4.1.1. caja 2, Etxarri Aranazko Udal artxiboa).

Dokumentuaren izenburuak dioten moduan, XVI. mendearen erdialdekoa dugu hau xe, baina, funtsean, lau hamarkada lehenagoko mugarriztatzea gogoratzen du bertan, 1523koa. Guztira hamasei mugarri aipatzen dira dokumentuan, Gipuzkoaren eta Araizko haranaren arteko mugan hasita, mendebaldera joaz. Honako hauek dira, laburbildurik, bertan aipatzen direnak, non dauden kokatuak ere adierazirik:

1. *Soilas bizcar*. Aralarko iparralde betean, Gipuzkoaren eta Araitz Haranaren mugan. Hemen *Irumugarrieta* toponimo esanguratsua dago. Toponimo horren osagaiak, seguru asko, *soil* + *-a* + *-zu* eta *bizkar* izanen genituzke. Lehen osagaiak landaretzarik gabeko eremua adieraziko luke, beste biak morfemak ditugu, eta azkenak lur gorunea esan nahiko luke, gaztelaniazko «loma».

2. *Arrate de Gorostiaga (entre los dos Cerros de Soilas [...])*. Aurrekotik hego-mendebaldera, Aralarren eta Gipuzkoaren arteko muga jarraituz. *Arrate*, harri arteko pasa, gaztelaniazko «desfiladero» adierazteko erabili da euskal toponimian, eta *gorosti* fitonimoak, *-aga* morfemarekin, gorostien lekua adierazten du. Eta eremu zabala izanik, zazpi mugarri jarri zituzten bertan iparraldetik hego-mendebaldeko norabidean muga zehaztuz.

3. *Soylas vizcarbarrena*. Aralarko planoan, *Arrataza de Soilaz Bizkarbarrena*, aurrekoaren ondoan. Lehen mugarriaren eremuaren barnealdean (*barrena*).

4. *Cerro de Gorostiaga*. «Uniones de Amezqueta y Villafranca» eremuekin muga eginez. Bigarren mugarria harratean edo pasalekuan, eta hori, aldiz, eremu bereko mui-noan.

5. *Gorostiaga arreguia*. (*H*)arri eta (*h*)egi + *-a* dira bigarren hitzaren osagaiak, hau da, leku irekia.

6. *Gorostiaga zavalala (Llano de Gorostiagazavalala)*. Aurreko mugarrien kokalekuaren zabalgunea.

7-8. *Gorostiagagaña (un mojon en Gorostiagagaña... pusimos otro nuevo...)*. Eremuko tokirik altuena (*gaña*).

9. *Tricuarri*. (*Cerro de Tricuarri... Suzon de Elordielusa... Peña Verga...*). Dolmena adierazten du: *La Piedra de Tricuarria*. Suzon¹¹ landare mota bat da gaztelaniaz; beraz landare horren eremua adieraziko luke toponimoaren lehen osagaiak. Bigarren osagaia konposatua da, eta *elorri* + *-di* + *elu(t)s* dira bere osagaiak: elorrien tokia, baina eguzkiak gutxi ematen duena, ospela edo laiotza, horixe baita azken osagaiaren esanahia: barga seguru asko, amildegia.

10. *Errenaga (Errenaga y del Cerro de Tricuarria hasta la Piedra de Tricuarria...)*. Aralarko toponimian, horrela, baina era sinkopatuan erabiltzen da: *Ernaga*. Erren edo arantza askoko lekua.

11. *Pozo grande de Errenaga*.

12. *Buztizategaña (Buztizategaña... Punta del Pozo... Errenagachiquia... Errenagachipia)*. Aralarko toponimian *Buztirateko ateka* eta *Buztirategañeko bidea*, baita *cerro de Buztirate* (1561) eta *Bustirategaña* ere (1846). Lehenaren iruzkinean honako hau diote NTM XIIIn: «Ormazarretatik *Ernagaa* ateratzen den *halako ate... Holaxe, zea bat*

11 Honela dakar RAEk: «suzón Del lat. *senecio*, *-ōnis*. 1. m. zuzón»; baita honela ere: «zuzón De *suzón*. 1. m. hierba cana». *Senecio vulgaris* da landarea: «suzón s. m. BOTÁNICA Zuzón, planta compuesta, de tallo ramoso, hojas gruesas y partidas y flores amarillas tubulares» (Gran Diccionario de la Lengua Española, 2016, Larousse Editorial, S.L.).

da, tunel bat pasako balitz bezala». Ate eta gain + -a soilik eman ditzakegu toponimo horietan osagai segurutako. Bestalde, aipagarria da *txiki* eta *ttipi* bi moduetara erabili izana parentesi arteko azken toponimoa.

13. *Ormazarreta (Cerro de Buztizate... Hacia Ormazarreta)*. Aralarko toponimian honela dakar: «En este importante raso está situada una gran majada, que es compartida por varios pastores, a diferencia de la mayoría de las majadas del Aralar navarro, que suelen ser individuales. Cerca de este paraje, en las laderas de Aparain, está situada la sima de Ormazarreta, que con sus 375 metros de profundidad es la mas importante de Aralar». Mendebaldera joaz, Aranazko herrietako eremuetatik hurbil. (H)orma + za(h)ar + -eta dira bere osagaiak.

14. *Urrestarazu barrena (Cerro grande de Buztizategaña...)*. NTM XII historikoan *Urrestarazu barrena* ageri da, hizpide dugun dokumentuari erreferentzia eginez. Ez da bestela Aralarko gaur egungo toponimian ageri. Hurriz fitonimoa du oinarrian.

15. *Leceta Arañavea o Aqueaz (la Punta de Aqueaz...)*. Lehen biak NTM XII historikoan soilik ageri dira horrela, eta hirugarrena *Aqueaiz* gisara ere historiko berean, baita, 1846an, *Aqueiz* moduan ere. Leizeen eremua, lehenaren kasuan; eta, bigarrenan, (ih)ara + (ga)in + -a > *araña* seguru asko lehen osagaiaren oinarrian, eta *be(he) a* amaieran. Honela azaldu nuen *Euskera* aldizkarian (Erdozia, 2017b) argitaratutako artikuluan azken bilakabide hori: «*Araña* < **araaña* < **yaraaña* < **yaragaña* < *ihara* + *gain* + -a [...]».

Mikel Belaskok (2000, 61-62. or.) *Arain* (Bidankoz) eta *Arainburu* (Goizueta, Zubieta) toponimoei buruz honela esan zuen: «Probablemente de *arain* (variante de *haran* ‘valle, vaguada’) aunque por tratarse de un alto no debe descartarse que la terminación sea una contracción de *gain* ‘alto’».

16. *Oreguigaña (...a Oreguigaña donde pusimos otro mojon desde allí hasta confinar con el Mojon de Echarri por las cumbres Aguas vertientes)*. Etxarri Aranazko toponimian *Odoigēne* eta *Oroigēne*.

(7. puntuko mapan ikus daiteke 16 mugarri horien balizko kokapena).

6.2. 1857ko mugarritzea (Arañatz - Lakuntza - Arruazu - Uharte Arakil - (Baraibar) - Errazkin - Betelu - Intza eta Gaintza Aralarrekin mugan)

Oreguigaña mendian elkartu ziren Arañaz elkarteko, Lakuntzako, Arruazuko, Uharte Arakilgo, Errazkingo, Beteluko, Intzako eta Gaintzako ordezkariak, 1686ko mugarritzea oinarri harturik, herri bakoitzak Aralarko eremuarekiko mugak berrikusteko.

6.2.1. Parte-hartzaileak

Eskribaua: Martin Francisco Saralegui.

Kontsultorea: Baso Alvarez de Carballo.

Arañaz elkarte.

Etxarri Aranatz: Martin Artieda, alkate, Jose Erdocia eta Miguel Jose Huici, erregidoreak.

Ergoiena: Matias Lizarraga, Ergoienako alkate; Martin Yjurco, Lizarragako erregidore.

Arbizu: Jose Martin Iriarte, alkate.

Lakuntza: Isidro Garciandia, alkate.

Arruazu: Gabriel Cristobalena, alkate.

Uharte Arakil: Miguel Francisco Irañeta, alkate; Jose Vicente Fernandino, erregidore; Domingo Razquin, Leon Gorriti, adituak.

Irañeta, Ihabar, Hiriberri: Ignacio Cia.

Araitz Harana, Errazkin, Betelu: D. Francisco Yeregui, Martin Vicente Otermin eta Martin Jose Martinicorena, eremu horietako ordezkari moduan.

Lan honetako lehen mugarrizekoaren jarraipena izanen genuke hauxe (1523koarena, funtsean). Gogoratu hura, 6.1 puntua, *Oregigañan* utzi dugula, *Soilas bizkar* toponimotik hasitako mugarrizean, datu haiekin eta hauekin egin dudana Aralarko mapan geroxeago ikus daitekeen moduan.

Jarraian, *Putterri* ondoan dagoen *Oregigaña* (*Oroigeñe* etxarriarrendako) toponimotik hasi eta, egungo Ergoienako eta Arbizuko ipar-ekialdeko mugetan barna, Lakuntzak eta Arruazuk Aralarrekin muga egiten duten eremuetako zenbait mugarriri izena ematen dieten leku-izenak aztertuko ditut, mendebaletik hego-ekialderako norabidean:

(1-2) *Oreguicobalsa*. Etxarri Aranazko toponimian *Odoigaña* dago jasota eremu horretan. Hala ere, mugarrizean bezala ageri da dokumentaturik 1794an. Bigarren osagaia, begi bistakoa: ur-baltsa.

(3) *Putarri*, *Putarricozuloandia*. Etxarri Aranazko toponimian *Puttarri*, eta, herritarrek bokal irekia asimilaturik, *Putterri*. Modu ezberdinetan dokumentatua, zaharrena 1197an: *Bueytarri*. Osagaiak, bistan da: *pu(i)t(r)e* + *(h)arri*. Bigarrena toponimian *Puttarriko zulo handia* ere; azken osagaiaren hasierako bokala diptongaturik: *(h)aundiye*.

(4-5) *Gainchiquieta*. Aralarko toponimian *Gaintxirieta*, inolako azalpenik gabe. *Gain* + *txiki* + *-eta* dira seguruenik osagaiak, gain txikiz osaturiko eremua adieraziz.

(6) *Siasbelceta*. Arbizuko toponimian *Siasdegiak*, *Siatsa*, *Siatseta*, *Siatsetako etxe txikia* eta *Siatsetako harri gaiztoa*. *Siats* toponimiako generikoa da, eta toki hezea, madura, adierazten du. *Beltz* izenondoak ez dio, seguruenik, koloreari erreparatzen, eremuaren desegokitasunari baizik.

(7-8) *Mandueta*. Horrelaxe Aralarko toponimian, 1.144 m-ko altuera duela baino ezer gehiago adierazirik. Osagaiak, seguru asko: *mando* + *-eta*.

(9) *Tristansare*. Hau ere honelaxe Aralarko toponiman. Tristan izeneko norbaiten sarea (saroì), hau da, ganadua gauez biltzeko tokia, eta batzuetan eraikuntza ere bai.

Elurzulota («nebera natural» mugarritzean). Etxarri Aranazko toponimian, *Elurzulota*. Mugarritzeak gaztelaniaz adierazten du toponimoaren esanahia.

(10) *Lizardi*. Aralarko toponimian, *Lizardieta*, eta, NTMn, 1209 m-ko altuera duela soilik. *Lizar* + *-di*.

(11-12) *Aiceguigaña*. Arbizuko toponimian, *Aitzegigaña*. Osagaiak (*h*)aitz + (*h*)egi + gain + *-a* dira, haitzez osatutako hegalarren edo maldaren gaina, beraz.

(13-14) *Meceriangaña*. Arbizuko toponimian, *Mezeriain*, *Mezeriain barreneta* eta *Mezeriaingo borda / iturria(k) / larrea / zuloa / zulo handia*. Azken osagaia *-gain* da seguru asko, eta erredundantea gainera, *Mezeriain* toponimoak, agian, *-(g)ain* duelako azken osagai moduan.

(15) *Arrartechipia*. Aralarko toponimian, *Arrartetxipia*, eta, dokumentaturik, *Arrartechipia de Amuruchate*, 1685ean. (*h*)arri + *a(r)te* + *t(í)pi* + *-a* dira bere osagaiak, bigarrena bi modutara erabilia ageri baita. Edozein modutara, mendiko pasa txikia («portillo») adierazten du.

Erchia de Corosabarren. Arbizuko eta Aralarko toponimian, *Korosabarreneko harratea*. Mugarritzeko lehen osagaiak, hertsia, toki estua edo mehargunea adierazten du, eta bigarrenaren osagaiak, seguru asko, *korotz* + *-a* + *barren* dira, txistukarien txandaketa edo nahasketa dela medio.

(16)(1) *Yrumugueta*. Arbizuko azken mugarría eta Lakuntzako lehena. Uharte Arakilgo eta Aralarko toponimian ageri da, eta beste eremu askotan ere bai.

(2) *Churuchuberri*. Aralarko toponimian, *Txuritzuberri*. Etxarri Aranazko toponimian *Txuritzuzarreta* dago, eta honako hau nioen bere iruzkinean lehen osagaiari buruz: «zuhaitzik edo landarerek gabeko tokia izanen litzateke». Arañaz elkartearen mapan *Churichuzarreta* ageri da. Aspaldikoa da Etxarri Aranazkoa, orduan; berriagoa Aralarkoa.

(3) *Beraingoarria*. Lakuntzako eta Aralarko toponimian, *Berigaingo harria*. Osagaiak, seguru asko: *ber(a)* + *-(g)ain* + *-go* + (*h*)arri + *-a*. Aurrez aurre du Beriain mendia haranaren hegoaldean.

(4-5) *Larlucegaña*. Lakuntzako toponimian, *Larluz*, eta Aralarkoan, *Larluzegaña*. Osagaiak, bistan da: *lar(re)* + *luz(e)* + *-gain* + *-a*.

(6-7) *Irucilachiquita*. Lakuntzako toponimian, *Iruzulotxikieta*. Eta osagaiak, bistan da: *(h)iru* + *zulo* + *txiki* + *-eta*. Aipagarria da mugarritzean bigarren osagaiaren /i/ erdiko bokal itxiaren erabilera, Euskal Herriaren iparraldearen eta ekialdearen antzera: *zilo*.

(1-2) *Aubiagaña*. Lakuntzako eta Arruazuko toponimian, *Aubiagaña*, eta Arruazun, gainera, *Aubia* eta *Aubiako sarea*. Arruazuko lehen bi mugarriak.

Iruranlarrea. Ez da ageri Lakuntza, Arruazu, Uharte eta Aralarko toponimia ofizialean. Osagaiak ikusirik, pentsa daiteke hiru eremu hartzen dituen belardia adierazten duela: Lakuntza, Arruazu eta Aralar.

(3) *Ervillarri*. Arruazuko toponimian, *Erbillerri*, honako iruzkin honekin: «Los informantes lo traducen como pueblo de liebres». Irañetan *erbil* erabiltzen dute lur mokrak hausteko mailu handia adierazteko. *Herri*, bestalde, eremua adierazteko erabiltzen da toponimian.

(4) *Belaztangoentrada*. Aralarko toponimian, *Belaztan*. Eremu horretarako sarrera da, beraz. *Belatz* da, seguru asko, lehen osagaia.

(5) *Elormenta*. Arruazuko toponimian, *Elurmenta*. Bere osagaiak, seguru asko, *elur* + *benta* dira, eta elur asko izaten den eremua adierazten du.

Orormendigaña. Ez da ageri inguruko herrietako toponimian, ezta Aralarko ofizialean ere.

(6) *Geltilarri*. Aralarko toponimian, *Jentilarri* eta *Jentilarria*, lehenak eremua eta bigarrenak trikuharria adieraziz, seguru asko.

Aragoarria. Hau ere ez da ageri inguruko toponimian. Osagaiak, akaso, *(ih)ara* + *-ko* + *(h)arri* + *-a* dira, hau da, errotako harria.

(7-8) *Debata*. Lakuntzako, Arruazuko eta Aralarko toponimian ageri da. Aurreko mugarritzean *Debate* moduan ageri da eta, eremu ezberdinetako muga izanik, beti arazoak izan dira bertan («debate»). Sakanan, Aralar aldeko hau eta baita Arnatz-Ondatz eremuan ere ageri da aipatu toponimoa.

(8)(1) *Debatagaña* (hau ez da ageri NTMn). Arruazuko azken mugarria eta Uharte Arakilgo lehena.

(2-3-4) *Debatako larrea* ere ageri da mapan. San Miguel in Excelsis aipatzen da mugarren norabidea markatuz.

(5) *Araizarrate*. Soilik 1857ko dokumentuan eta horrela jaso zuten NTMn ere. Osagaiak, agian, *(ih)ara + (h/g)aitz + (h)arr(i) + ate*, *Euskera* aldizkarian (Erdozia,2017b) iradokitako bidetik (ikus 6.1 puntuko 15. mugarriaren azalpena).

(6-7-8-9-10-11-12) *Ecelzieta*. *Ecelzietagaña* 1857ko mugarritzean soilik ageri da, baina *Ezezeta*, *Ezezetako iturria*, *Ezezetako iturtzar* eta *Ezezetako langa* Uharte Arakilgo toponimian.

(13-14-15-16) *Aizurdingaña*. Ez da ageri toponimia ofizialean ez Uharte Arakilen, ez Aralarren. Osagaiak begi bistakoak: *(h)aitz + urdin + -gain + -a*. *Haitzurdin* hitza *har-gorra* (kare-haitza) adierazteko erabiltzen da. Euskaltzaindiaren Hiztegian, *haitzurdin* marmola adierazteko erabili behar dela dio.

(1-2) *Luzanbideko larrea*. Aralarko toponimian, *Luzanbide* eta *Luzanbideko larrea*. Osagaiak, begi bistakoak, *luze* eta *bide*, baina tarteko kontsonante sudurkariak toponimian ezaguna den erlatiboa erabili dela pentsaraz dezake: *luz(e)¹² + (de)n + bide + -a*. Errazkingo lehen mugarriak.

(3-4)(1) *Surbicelay*. Aralarko toponimian jaso, baina hizpide dugun dokumentuan du erreferentzia bakarra. Osagaiei dagokienez, azken biak baino ez daude nahiko seguru: *bi* eta *zelai*. Lehena, agian, *su(du)r*, horrela gauzatzen baita, sinkopaturik, aurpegiko apendizaren izena gure eremu guztian. Beraz, bi apendize geografiko dituen zelaia adieraziko luke. Errazkingo azken mugarria eta Beteluko lehena toponimo honen eremuan zegoen.

(2-3-4-) (1) *Algortakogaña*. *Algorta* eta *Algortako gaina* Aralarko toponiman, baina bigarren hori mugarritze honetan soilik. *Algorta* Malloetako ekialdeko muturrean dagoela dio NTMk, eta 1228 m-ko altuera duela. Osagaiak, beharbada, *(h)ar(ri) + go(go)r + -(e)ta* dira, /r/ > /l/ txandaketa eginik, edo zergatik ez pentsatu bigarren eta hirugarren osagaiak bateginik *korta* eratzen dela? Beteluko laugarrena eta Intzako lehena ere bai.

(2-3) *Atillun*. Aralarko toponimian, baina soilik mugarritze honetako erreferentziarekin. *Ate + illun* dira seguru asko bere osagaiak.

(4-5) *Fallita*. Aralarko toponimian, baina, beste behin, soilik mugarritze honetan.

(6) *Illutico arrate*. Aralarko toponimian, mugarritze honetako erreferentziarekin soilik. Bigarren osagaia baino ez da begi bistakoa: *(h)arr(i) + ate + -a*.

12 /a/ konposizioan.

(7) *Aguerdico zuloa*. Hau ere Aralarko toponimian, hemengo lekukotza bakarrarekin. Toponimoaren osagaiak honako hauek dira seguru asko: *ager(ri)*¹³ + *-di* + *-ko* + *zulo* + *-a*. Leku ireki edo ez ezkutua behintzat, eta nora begira dagoen adieraziko liguke lehen osagaiak.

(8) *Atallorbe*. Aralarko toponimian, *Atallaurre*, baina mugarritze honetako moduan soilik dokumentatu da. Osagaiak, seguru asko, *Atall(o)* + *aurre* dira.

(9) *Atallorbegaña*. Aurrekoaren gainaldea.

(10) *Arrigorrituaga*. Horrela Aralarko toponimian, erreferentzia bakar honekin atzera berriz, «las piedras enrojeadas» itzulpena eta guzti.

(11) *Usalbide aguerria*. Aurrekoa bezala. Osagaiak, agian, *u(r)* + *za(ba)l* + *bide* + *agerri* + *-a* dira, edo, besterik gabe, *uso* + *ar*, l/r txandaketa eginik. Begien bistan dagoen ur-korrontea, orduan, edo ageriko eta ohiko uso arren bidea (uso-pasea), apika. *Mugarrichuri* toponimoa ere ageri da.

(12-13) *Aracerteguia*. Aralarko toponimian hau ere, dokumentu honetako erreferenziarekin.

(14) (1) *Armuñoa*. Aurrekoak bezala dokumentazioari dagokionez. Osagaiak, (*h*) *ar(ri)* + *muino* + *-a*. *Mugaberria*. Ez da ageri dokumentaturik, eta osagaiak begi bistakoak dira.

(2-3-4) *Sollazgaña*. Horrela Aralarko toponimian, baina 1991n dokumentatua. Osagaiak, seguru asko, 1561etik 1564ra bitarteko mugarritzearen kasuan nioen moduan, *soil* + *-a* + *-zu* eta *gain* + *-a* izanen genituzke. Lehen osagaiak landaretzarik gabeko eremua adieraziko luke, eta gainerakoak aipatuak ditugu dagoeneko.

Horiek guztiak 1857ko mugarritzean ageri zaizkigun toponimoak ditugu, baina, lehentxeago esan dugun bezala, Baraibarkoak falta zaizkigu, ez zelako bertako inor ageritu ikuskatzea egin behar zutenean. Hala ere, nik Baraibarko lurak Aralarrekin mugagiten duen eremuetako zortzi toponimo (NTM XII) izan ditut kontuan:

Posteroko haitz. Aralarko eta Uharte Arakilgo toponimian, horrelaxe, eta *Posteroko haitzeko lezea* ere bai azken horretan. Barranca-Burundan, *Postekoaitze*. Uharte Arakilen hiru modutara ahoskatzen dutela dago jasorik NTMn (*posterokuaitz*, *posterukuaitz*, *borturokueitz*), eta horietako azkenak pentsarazten dit *portura* edo *postura* izan dezakeela jatorrian toponimoak. Lehena izanez gero, oso begi bistakoa litzateke esanahia, eta bigarrena, aldiz, ehizarekin lot liteke, ehiza-postua adieraziz.

13 Euskaltzaindiaren Hiztegiaren bada *agerri* (adj. *Zab.* markarekin), eta *ageria* adierazten duela dio.

